

## **Funtzionamenduko eta antolaketako jarraibideak, 2020-2021** **ikasturterako hautaketa ekitaldiak egiteko. Hezkuntza Departamentua**

COVID-19aren bilakaerak eragindako egoeran beharturik gaude zenbait protokolo eta prozedura ezartzera, jarduerarekin jarraitu ahal izateko behar adina berme izanda. Osasun arloan eskumena duten agintariek ematen dituzten aholkuei jarraikiz, honela antolatuko ditugu ekitaldiak:

- Langileei dei eginen zaie Hezkuntza Departamentuan ager daitezen, kasuan kasuko ekitaldia hasi baino 15 minutu lehenago. Horrela, modu ordenatuan egiten ahalko da identifikazioaren kontrola, langile gehiegi pilatu gabe.
- Departamentuko langileek eginen dute identifikazioa, klaustroko estalpean egonen den kontrol batean. Han, bertaratuei NANA eskatuko zaie, itxitura batekin babesturik.
- Deialdiak txandaka eginen dira, eta gehienez ere 30 lagun izanen dira horietako bakoitzean. Guztiak ordenan jarriko dira seinaleztaturiko tokietan, ekitaldi aretoaren barnean nahiz kanpoan, segurtasun tartea gordetzeko.
- Deitutako langile guztiek bakarka joan beharko dute hautaketa ekitaldira, laguntzailerik gabe, salbu eta pertsona batek laguntza behar badu edota mugikortasun arazoak baditu.
- Maskara jantzi beharko da, nahitaez, maiatzaren 19ko SND/422/2020 Aginduan arautzen den bezala. Agindu horren bidez, arautu ziren COVID-19ak eragindako osasun krisialdian maskara nahitaez erabiltzeko baldintzak.

#### Artículo 1. Objeto.

La presente orden tiene por objeto regular el uso obligatorio de mascarilla por parte de la población.

A los efectos de lo dispuesto en la presente orden, se entenderá cumplida la obligación a que se refiere el apartado anterior mediante el uso de cualquier tipo de mascarilla, preferentemente higiénicas y quirúrgicas, que cubra nariz y boca. Se observarán, en todo caso, las indicaciones de las autoridades sanitarias acerca de su uso.

#### Artículo 2. Sujetos obligados.

1. Quedan obligados al uso de mascarillas en los espacios señalados en el artículo 3 las personas de seis años en adelante.

2. La obligación contenida en el párrafo anterior no será exigible en los siguientes supuestos:

- a) Personas que presenten algún tipo de dificultad respiratoria que pueda verse agravada por el uso de mascarilla.
- b) Personas en las que el uso de mascarilla resulte contraindicado por motivos de salud debidamente justificados, o que por su situación de discapacidad o dependencia presenten alteraciones de conducta que hagan inviable su utilización.
- c) Desarrollo de actividades en las que, por la propia naturaleza de estas, resulte incompatible el uso de la mascarilla.
- d) Causa de fuerza mayor o situación de necesidad.

Patologiaren bat izateagatik edo aparteko inguruabarren batengatik maskara jantzi ezin dutenek horren berri eman beharko dute, mezu elektronikoko bat bidaliz [sgpteducacion@navarra.es](mailto:sgpteducacion@navarra.es) helbidera. Behar den frogagiria aurkeztu beharko da, eta izen-deiturak eta NANA adierazi, pertsona hori identifikatzeko. Kontrol hau beharrezkoa da kokapen zehatzak jartzeko espazioan, bermatze aldera kontaktua eta esposizioa ahalik eta txikiena dela.

- Edozein arrazoi dela medio bertaratu ezin direnek, norbait izendatzen badute beren ordezkari egiteko, aldeztu aurretik jakinarazi beharko dute, mezu elektronikoko bat bidaliz [sgpteducacion@navarra.es](mailto:sgpteducacion@navarra.es) helbidera, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte:
  - Hautaketa egiteko deitutako pertsonaren NANA
  - Ordezkoaren NANA
  - Baimena, beteta eta sinatuta
- Deialdira joan izanaren frogagiri bat behar bada, posta elektronikoko bidez kudeatuko da. Ez da frogagirik banatuko hautaketa ekitaldian. Eskaera bat egin beharko da [sgpteducacion@navarra.es](mailto:sgpteducacion@navarra.es) helbidean, eta erantzunean erantsiko da frogagiria, Zerbitzuko zuzendariak sinatua.

**ALDI BATERAKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZERBITZUKO ZUZENDARIA**